

HIRIANTZA - HIRIA - ARKITEKTURA
URBANBATEFEST
2023
Originala
BILBOH
EGINDA

SEKULAKO JATUNA



JAIALDIARI BURUZ

URBANBATfest laborategi bat den jaialdia da. Edo jaialdi baten bihurtzen den laborategia. Un proceso de investigación sobre las transformaciones urbanas. Ikaskuntza, esperimentazio eta sorkuntza kolektiboko ingurune bat, hiri-berrikuntzako prozesuak bultzatzeko.

Edizio bakoitzean, URBANBATfest-ek hiri-fenomeno garaikide baten ikerketan jartzen du arreta. Eta denboran eta formatuetan hedatutako programa baten bitartez egiten du, jardunbide kulturalak eta artistikoak, arkitektura eta hirigintza, gizarte-zientziak eta kokatutako esperientziak gurutzatuz, elkarguneak ezarriz formala denaren eta informala denaren, teoriaren eta praktikaren, eratuta dagoenaren eta sortzen ari denaren artean.

Gure ingurune hurbilenean eragiten ari diren hiri-fenomenoak behatuz eta entzute aktiboa eginez hasten den lan-metodologia bat, hiriak giza mailan diseinatzea ahalbidetuko diguten aukerak proposatzeko eta baterako konponbideak lortzeko.

Jarduera desberdinen arabera antolatzen da programa, eta hiriaren eraldaketa lortzeko tartean sartuta dauden eragile desberdinen arteko topaguneak abian jartzeko ahalegina egiten du: administrazio publikoa, gizarte-eragileak, kultura arloko eragileak, ekonomia-arloko eragileak, unibertsitatea, herritarrak...

Jaialdian hiri-errealitatearen eta errealitate horrek dituen gatazken azterketa egiten da diziplina anitzeko programazio baten bitartez eta eztabaida nahiz azterketaren xede den kasua aberasten dituzten eta parte hartzeko metodologiak, erreferentziak eta tresnak ematen dituzten formatu desberdinak erabiliz.

Elkarlaneko berrikuntza irekiaren ideia horretatik abiatuta, kultura aldaketa bat bilatzen dugu, publikoa denari, guztiona denari buruzko hainbat jarrera eta balioetan ez ezik, hiria eraikitzeko moduan ere eragina izango duena.

info + hemen
+aurreko edizioak



SEKULAKO JATUNA

URBANBATFEST | 12. EDIZIOA

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA JAIALDIA
AZA25-ABE03 2023. BILBO

Azken urteetan, elikaduraren gaiak leku nabarmena hartu du eremu publikoan, agenda politikoan eta komunikabideetan: haragi-kontsumoa murrizteko gomendioei buruzko polemika, janari lasterra prestatzeko hiriaren erdialdeko espazioak hartzen dituzten sukaldeek (dark kitchen sukaldeek) ekarritako eragozpenak, janaria etxera eramateko enpresen ugaritzea, okupatzen duten espazio publikoa eta sortzen dituzten lan-baldintzak, elikadurarekin lotutako lurraren erabilera produktiboetarako deforestatutako espazio handiak, transgenikoen eta pestiziden erabilera, hornidura-azokak gurmetizaziorantz eta aisialdiko eta kontsumoko beste era batzuetarantz egiten ari diren bidea, hiri-nekazaritzaren hazkundera eta kontsumo-kooperatiba agroekologikoen ugaritzea... Horra hor kulturaren, politikaren eta orobat hirigintzaren arlokoa den eztabaida baten sintometako batzuk.

Carolyn Steel arkitekto eta ikertzaileak *Ciudades Hambrientas* liburuan dioenez, «personak bezala, hiriak jaten dutena dira». Baieztapen horrek aitorrarazten digu hirien garapena ezin dela banatu haien biztanleok elikatzen garen modutik. Izan ere, benetan erraza da elikadurak hirietan utzi dituen aztarnei jarraitzea eta argi dago elikaduraren kultura faktore erabakigarria izan dela hiri-espazioaren etengabeko eraldaketan. Eraikitako hirian, kale eta plaza batzuen trazaduran eta izenean eta

ondare eraikian, hala nola hornidura-azoketan, ikusten dugu. Elementu immaterialetan eta bestelako adierazpen kultural eta artistikoetan ere atzematen da, adibidez, herri-jaietan, argazkietan, margolanetan, eleberrietan, musikan...

Gaur egun, planetako biztanleen erdia baino gehiago hirietan bizi garenez, egunero ezinbestekoa da hiri-eremuetan metatutako milioika pertsonarentzako behar adina elikagai ekoitzi, inportatu, saldu, prestatu, jan, bota eta berriz eskura jartzea, eta sinestezina dirudi hiriotan bizi garenok ia edonon eta edozein unetan jateko nahikoa edukitzeak.

Elikadurak ahalegin itzela eskatzen du eta egiten dugun beste ezer baino inpaktu handiagoa dauka. Mundua elikagaien bidez behatzea lagungarria izan dakiguke hirian garrantzitsuak diren eta gure bizitzan eragina duten faktore ugariaren arteko interrelazioa ulertzeko: mugikortasunari eta garraioari eskainitako azpiegitura handiak, energia, klima-aldaketa, osasuna eta obesitate-epidemia, ekoizpenaren, banaketaren eta salmentaren arloko multinazional handien boterea, urbanizazioa...

Gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik jasangarria den mundu batean bizi nahi badugu, «ekohiriak» eraiki nahi baditugu, haien itxura fisikoa ez ezik elikatzen diren modua ere birpentsatu behar dugu. Eta ez da erraza izango, elikadura-sistema izugarri boteretsua da-eta bizi garen ekonomia globalizatuan. Zeregin hori betetzeko ezinbestekoa izango da denok geure erantzukizuna geure gain hartzea eta horri dagokionez zer edo zer egitea.

Komunikazioaren, artearen, kulturaren, arkitekturaren eta beste hainbat arloren munduan jarduten dugunok kontakizunak sortzeko erantzukizuna daukagu, bizi garen errealitatea azaltzeko eta elkarrekin bizitzeko beste modu batzuk proiektatzeko gai diren narratibak sortzekoa.

Ikuspuntu horretatik planteatu dugu URBANBATfest-en edizio berri hau. Janariaren eta espazioaren arteko harremanari buruz, elikagaiek gure hiriak moldatzen dituzten moduari buruz eta arkitekturaren, hirigintzaren, gizarte-zientzien eta praktika artistiko eta kulturalen arteko gurutzaketa gainjarrietan oinarrituta imajina ditzakegun erantzun-motei buruz elkarrekin hausnartzea proposatu nahi dizuegu.

PROGRAMA

AZA21. 10:00. Online zuzenean

CARNE CRUDA, NOLA MOLDATZEN DUITUZTE ELIKAGAI EK GURE HIRIAK?

Harategia etxean sartuko zaigu jaialdiari eskainitako Carne Cruda irratsaio bereziarekin.

Carne Cruda online irratsaio independentea da, Javier Gallego, «Crudo» gisa ezagunak, aurkeztua. Informazio kontrakulturala, asaldura, musika, artea, literatura, politika, umorea eta disidentzia aurkituko dituzu bere dastatzeko menuan.

+Entzun gordinean eta zuzenean [hemen](#)

AZA25. 12:00. Zabalgune Eraikia. Bilbo

MERKATUTIK MAHAIRA 4 PAUSUTAN

Jardunaldi honetan, Zabalguneko merkatu zaharra jantoki handi bihurtuko dugu, gure elikadura sistemak gure hirien espazio diseinua baldintzatzen duela hizpide hartuko duten zenbait eztabaida mahai gainean jarriko dituzten hizketaldi menu gozoekin.

- 1.-Itsasoa landu, Arantzazu Luzarragarekin
- 2.-McDonalds batean babestu Iago Carrorekin
- 3.-Cierito Estudioren sukaldean sartzea
- 4.-Pintxoak hartzera joatea Gustavo Albarekin

info + sarrerak [hemen](#)

AZA26. 12:00. Txoko Nordisk. Bilbo

ESCAPE KITCHEN ETA BERMUTA

Abentura fisiko eta mentaleko joko honetan, parte-hartzaileek sukalde batean itxita aurkitzen dira eta asmakizun eta buru-hausgarri batzuk ebatzi behar dituzte denbora jakin batean ihes egitea lortzeko.

info + sarrerak [hemen](#)

AZA29. 19:30. Anti Liburudenda. Bilbo

“LA COCINA SITUADA” LIBURUAREN AURKEZPENA

Planteamendu horretan, osagai/elikagai bakoitzak, prestatzeko eta zerbitzatzeko moduak, gure auzoetako elikadura-sisteman bizi diren eztabaida, tentsio eta memorieta sakontzen du.

Marina Monsonís-en presentziarekin. María PTQK aurkezle.

info + sarrerak [hemen](#)

AZA30 19:00. IED Kunsthal. Bilbo **SALDA BADAGO! ETORKIZUNeko ZOPA**

Balizko askoren emaitza da etorkizuna, iraganik eta orainik gabe existitzen ez dena. Zopa baten bitartez hura dastatzea da gure proposamena: ezustekoen destilatu bat, geure utopien eta distopien ispilu. Salda honek, denboran bidaiatzeko edabea den heinean, izan ginena, egun garena eta noizbait izan gaitzkeenari buruz hausnartzera gonbidatzen zaitu.

Sukaldariak:

Santos Bregaña
Harkaitz Cano
Frédéric Duhart

info + sarrerak [hemen](#)

ABE1. 18:00. La Terminal. Bilbo **ATRAKOIA**

Kultura-irudikapenen eta diziplinen lapurreta, elikadura-sistemak diseinatzeko moduari buruzko hausnarketei eta proposamenei heltzeko, hainbat jakintza, diziplina eta ezagutza jokoan jarriz.

- 1.-LAPIKOTIK DELIVERYRA.
- 2.-LURRA, ESPAZIOA ETA SUKALDARITZA.
- 3.-SUKALDE KOMUNITARIOA ETXEBIZITZA KONPLEXUAN
- 4.-POLIKRISI GARAIAN. ELIKADURA ETA ENERGIA
- 5.-DJ LATIMER PLATERRETAN

info + sarrerak [hemen](#)

ABE2 19:00. La Terminal. Bilbo

AGROHIRIA. ELIKADURAREN PAISAIK ETA SISTEMA ERAGILEAK

Iñigo García, María Romeo, Ibon Salaberria eta Jon Muniategiandikoetxea Markiegi bat datoz EHUko Arkitektura Eskolako Auzo Produktiboei buruzko ikerketan. Gaur egun, AgroHiria izeneko ikerketa garatzen ari dira, hiriek elikagaien ekoizpenean neurri batean buruaskiak izateko duten gaitasunari erantzuten diona.

info + sarrerak [hemen](#)

ABE3. 11:00. Erriberako Merkatua. Bilbo

OGIA ETA URA. IBILBIDE BAT ELIKADURAREN ARKITEKTURETAN BARRENA

Bilbotik zehar egingo dugun ibilbide gidatu honen bidez, hiriaren garapen historikoa marrazten duten elikaduraren arkitektura eta azpiegiturak aztertuko ditugu, hiriaren garapena bertako biztanleek elikatzen dugun moduan banaezina dela aitortzeko.

info + sarrerak [hemen](#)

Filmin

BEGIEKIN JATEA

Filmin streaming bidezko zinema-plataformaren pelikulen bilduma

Filme guztiak [hemen](#)

TESTUAK

Jaialdiak hainbat egileri enkargatutako testu-bilduma jaialdiaren aurtengo gaiari buruz

Testu bilduma [hemen](#)

SARRERAK

Sarrera guztiak [hemen](#)

INFORMAZIO OROKORRA

SOBRE URBANBAT Koop. (Organizador)

URBANBAT Koop. (Antolatzailea)

Hirigintzan, arkitekturan eta parte-hartzean diharduen gizarte-ekimeneko kooperatiba gara.

Horrez gain hiri-erlaketari buruzko ikerketak egiten ditugu eta hainbat formatutara eramaten ditugu: argitalpenak, erakusketak, eztabaidak, tailerrak, ibilbideak, ekoizpen artistikoak, formakuntza. Gako horietan antolatzen dugu urtero URBANBATfest, Bilboko hirigintza-jaialdia.

<https://urbanbat.org/eu/>

IRUDIAK

Irudiak deskargatu

Aurreko ediziotako argazkiak

SARE SOZIALAK

Twitter **@urbanbat**

Instagram **@urbanbat**

LinkedIn **URBANBAT**

Facebook **Urbanbat**

#URBANBATfest

PRENTSA KONTAKUTA

Gorka Rodríguez Olea, +34 658 700 837, gorka@urbanbat.org



CARNE CRUDA

EN DIRECTO

ESPECTACULAR: CÓMO MOLDEAN LOS ALIMENTOS



DEL MERCADO A LA MESA

EN 4 PASOS

1. ARANTZAZU LUZARRAGA, 2. IAGO CARRO Eyzaguirre, 3. MARTA BENEDICTO Cuello Esteban
4. DEGUSTACIÓN DE PINTXOS DE GUSTAVO ALBA Usanaco



ESCAPE KITCHEN

VERMUT
TEATROLARI, Escuela de Artes Escénicas



PRESENTACIÓN DEL LIBRO

LA COCINA SITUADA

DE MARINA MONSONIS, *Artista visual*
PRESENTADO POR MARÍA PIÑIK



SALDA BADAGO!

SANTOS BREGAÑA
HARKAITZ CANO
FRÉDÉRIC DUHART

EN EL FUTURO NO HAY VERDADERO MAR PESADILLAS NUCLEARES ES O SI SIQUE HAY



EL PUCHERO AL DELIVERY
TO Y COCINA:
SDE LA SOCIOLOGÍA COMO HERRAMIENTA DE PREVENCIÓN
UNITARIA EN LA VIVIENDA COMPLEJA
POLI-CRISIS, ALIMENTACIÓN Y ENERGÍA
CON DJ LATITME

EL ATRACÓN



AGROHIRIA

PAISAJES Y SISTEMAS OPERATIVOS DE LA ARQUITECTURA

IÑIGO GARCÍA, MARÍA ROMEO, IBON SALABERRIA Y JON MUNITATEGIANDIKOETXEA



A PAN Y AGUA


UNA RUTA POR LAS ARQUITECTURAS DE LA ALIMENTACIÓN
BAJO EL PARAGUAS DE PATXI GARCÍA DE LA TORRE

ANTOLATZAILEA

urbanbat

arquitectura
urbanismo
innovación
social

BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



MEDIOAK

